

## 2020-M8. AHIZPATASUNA ETA BORROKA

Gaur ere, borroka feministan emakumeen auto-antolaketaren beharra azpimarratzen jarraitzen dugu. Guk ez dugu berdintasun formalik nahi, ezta mugarik gabe kontsumitzeko berdintasunik, ez eta pertsonak eta lurraldeak esplotatzekorik ere. Ez dugu nahi munduko beste leku batzuetan ezta gure inguruan emakume askoren esplotazioan sakontzen duten errezeta neoliberalik. Tokian-toki jarduten dugu planeta osoko gure ahizpa feministekin konektatuta egoteak ematen digun ikuspegi globalarekin.

Ahizpatasuna eta borroka dira gaur plazara ekarri nahi izan ditugun bi ardatzak. Ez dugu bata bestea barik ulertzen. Ez gaude prest ahizpatasunik gabeko borrokan ekiteko, eta ez dugu ulertzen, borrokan ezpada behintzat, ahizpatasuna.

Sororidad y lucha, son los ejes que hemos elegido para el día de hoy, pues entendemos que una alianza entre mujeres que luchan juntas, es el único camino válido para alcanzar nuestra meta.

Ahizpatasuna ulertzeko modu asko egon daitezke. Baina gure artean harremantzeko oinarrian egon behar da, heteropatriarkatuaren tranpa eta zuloetan ez erortzeko, eta gure ahizpei erortzen ez uzteko, edo behin erori denari jakikitzen lagundu eta gure artera ekartzeko. Bidean ahizpa erortzen bazain, lepoan hartu ta segi aurrera.

Sororidad. Aunque nuestras abuelas y bisabuelas no reconocerían como suya esta palabra, muchas veces debió de ser la base de sus relaciones. No nos estamos inventando nada. Durante siglos la sororidad ha sido la manera de ayudarse y entenderse mutuamente, y caminar juntas sobre las trabas y limitaciones impuestas. Hoy le queremos dar una nueva dimensión al concepto de sororidad, una dimensión política. La traemos a la plaza, al centro de la lucha feminista y reconocerle el sitio que se merece.

Baina gure arteko harremanak beste oinarri baten gainean ere eraiki nahi ditugu, borrokan. Etxean, lanean, tabernan... zailagoa egiten zaigu borrokatzea. Hor ez dugu plaza jendez beteta, bakarrik zailagoa da, baina egin beharrekoa. Iraultza etxetik hasten da. Gure bidea borroka da, askatasunerantz, berdintasunerantz. Eta bidaia horren edertasuna begi aurrean daukagu, orain atzera egiteko.

Las feministas somos luchadoras, pues el feminismo es lo que conlleva consigo. Es un viaje en el que corremos, bailamos, lloramos y descansamos. Viaje al que nos sumamos una a una, llenando cada vez más las plazas los 8 de Marzo, pero también encarando las cosas

cotidianas con actitud luchadora. Nuestro contexto, el día a día, muchas veces se convierte en nuestro peor enemigo. Y en esos pequeños espacios tampoco estaremos solas, ..... Es una lucha colectiva.

Elkar zainduz, elkar ezagutuz eta berrezagutuz, elkar laztanduz, elkar ikusiz, berrikusiz, elkar maitatuz. Emakumeen arteko aliantza berria sortzen ari da, guztia amildu eta berreraikiko duena. Baina ez gara beste behin zurikeriatan eroriko. Feminismoa ez da moda bat, lesbiana izatea edo transgeneroa izatea moda bat ez den moduan. Hau borroka politikoa da, eta hori inoiz baino argiago izan behar dugu. Bidea gurea da, guk geuk egin beharrekoa. Eta ez dugu inoren baimenik behar. Gure modura, gure gogora egingo ditugu egitekoak, borroka gurea da. Sentitzen dugu inor mintzen badugu, baina gotorleku pribilegiatuetatik minduta sentitzeak ez digu balio. Onar ezazue.

La unión entre sororidad y lucha es un nuevo encuentro y reencuentro entre mujeres, nos estamos uniendo en todo el mundo, inventando nuevas formas de vivir, reinventándonos a nosotras también. A su vez, es el nuevo revulsivo del heteropatriarcado. Un sistema que deja de lado las vidas de muchas. De las mujeres, de las migrantes, las racializadas, de las bolleras, de las gordas, de las canosas, de las viejas.

Horregatik guztiagatik, martxoaren 8 honetan suntsitzen gaituen kapitalismo basatiari aurren egingo dion eta arrazakeria instituzionala apurtzeko borrokatuko duen feminismoa aldarrikatzen dugu. Gure arteko ahizpatasuna sendotzeko eta elkarrekiko harreman-sareak ehuntzen jarraitzeko urrats bat gehiago eman nahi dugu gaur. Asko gara, eta errotik dena aldatzeko ari gara !!! GORA EMAKUMEON BORROKA!!! GORA BORROKA FEMINISTA!!!!

Irradaka dantzatzeko oharrak: